

Antzezlanak argitaratzeko laguntzen oinarriak

Autoreen Espres Antzerkiaren 2. deialdia (2018)

SGAE Fundazioak argitalpen-lerroa du, Autoreen Espres Antzerkia Bilduma, estreinatu gabeko antzezlanak sustatzeko eta zabaltzeko. Bilduma ez da salgai egongo, 250 ale baino ez dira argitaratuko, eta estreinaldirako emango zaizkio autoreari. Halaber, profesionalen, kritikarien, akademikoen eta abarren artean banatuko dira. Deialdi honetan, 5 antzezlan hautatuko dira gehienez ere.

Deialdia oinarri hauek arautuko dute.

Lehenengoa: eskatzaileak

SGAE Fundazioak SGAEko kideak diren eta bizirik dauden autoreek aurkeztutako argitalpen-eskaerak aztertuko ditu.

Bigarrena: lanen betekizunak

Deialdira aurkeztutako antzezlanek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. SGAE n edo erregistroan erregistratuta egotea.
2. Lanen estreinaldi absolutuak egin beharko dira 2018ko irailaren 1aren eta 2019ko martxoaren 31ren artean.
3. Lanaren aurreikusitako 10 emanaldi frogatu beharko dira.
4. Antzezlanak estatuko hizkuntzetako batean idatzita egon beharko dira: gaztelaniaz, katalanez, euskaraz, galizieraz edo valentzieraz. Bestela, autoreak/autoreek aukeratutako beste edozein hizkuntzatan ere idatzita egon ahalko dira. Deialdira aurkeztutako lana idazteko erabilitako hizkuntza ez da ezinbestean estreinaldikoa izan beharko. Dena dela, itzulpena ez du inola ere SGAE Fundazioak ordaindu beharko. Ebaluazio-batzordeak, lana ebaluatze aldera, gaztelaniazko itzulpena behar badu kide batek ere ez dakielako lana aurkezteko erabili den hizkuntza, testuaren egileei eskatuko zaie itzulpena.
5. Lanaren argitalpena editore batekin hitzemandako edo kontratatuta ez egotea, eta, egongo balitz, argitalpen hori eta SGAE Fundazioarena bateragarriak izatea, egileak horretarako beharrezkoak diren eskubideen titulartasuna duelako.

Hirugarrena: hautatutako lanen kopurua

Deialdi honen bidez, gehienez 5 antzezlan hautatuko dira, Autoreen Espres Antzerkia Bilduman argitaratzeko.

Laugarrena: argitalpen-kontratua

Hautatutako antzezlanen autoreek konpromisoa hartzen dute SGAE Fundazioarekin kasuan kasuko argitalpen-kontratua sinatzeko, argitaratzaileak zehaztutako baldintzetan.

Bosgarrena: argitalpenaren ezaugarriak

1. Hautatutako antzezlanak SGAE Fundazioaren Autoreen Espres Antzerkia Bilduman argitaratuko dira.

2. Argitalpena ez da salgai egongo. Beraz, kasuan kasuko autoreek eta SGAE Fundazioak berak ezingo dute alerik saldu.
3. Tirada: antzezlan bakoitzaren 250 ale inprimatuko dira. Horietatik, 150 ale bidaliko zaizkie kasuan kasuko autoreei, eta kostuak ordainduta egongo dira. Gainerako 100 aleak SGAE Fundazioak berak banatuko ditu sektoreko profesionalen artean (ekoizleak, akademikoak, argitaletxeak, konpainiak...). Horrez gain, zenbait ale erabiliko dira SGAE Fundazioko zabaltze-, sustatze- eta artxibatze-lanetarako.
4. Hautatutako autoreek berariaz eskatuz gero, hirugarren klausulako 3. puntuari aipatutakoa baino handiagoa izan ahalko da tirada. Hala ere, tirada gehigarri horren kostuak ez lirateke deialdi honen bidez ordainduko; beraz, eskaera egiten duten autoreek ordaindu beharko lituzkete kostuok.
5. Lanak deialdian aurkezteko erabilitako hizkuntzan argitaratuko dira, edo, autoreek hala eskatuta, gaztelaniara itzulita. Horretarako, autoreek kasuan kasuko itzulpena helarazi behar diote SGAE Fundazioari.
6. Autoreen Espres Antzerkia Bilduman argitaratzeko deialdi honetan hautatutako lanak editatzean, ez da inolako eskusibotasun-konpromisorik hartuko. Hala, beste edozein argitaletxe ere argitaratu ahalko ditu.
7. SGAE Fundazioak hautatutako antzezlanak Autoreen Antzerkia Bilduman argitaratu ahalko ditu ala ez. Kasu horretan, argitaratzeko kontratu berria egingo zaie antzezlanei.
8. Argitalpen fisikoarekin batera, SGAE Fundazioak deialdi honetan hautatutako antzezlanen argitalpena prestatuko du formatu digitalean, eta jendeak SGAE Fundazioaren webgunean izango du eskuragarri.
9. Hautatutako lanaren autoreek onartzen dute salgai jartzeko argitalpenean aipatzea SGAE Fundazioa eta SGAE izan direla argitaratzailea kolaboratzailea, hurrenez hurren.

Seigarrena: agiriak

Eskaerak agiri hauek izan behar dituzte:

1. Eskaera-inprimakia, behar bezala beteta.
2. Eskatzailearen nortasun-agiria.
3. Eskatzailearen CVa.
4. Lan osoa Word edo antzeko formatuan, betiere editatzeko moduko formatuan badago.
5. Estreinaldi absolutuaren egunari eta antzezenak egiteko konpromisoari buruzko egiaztagiriak.
6. Horrela bada, laguntza hauetara aurkeztutako lanaren eskatzaileak dagoeneko editorearekin edo editoreekin sinatuta dituen argitalpen-kontratuak.
7. Egileen berariazko baimena, SGAE Fundazioak euren datu pertsonalak erabil ditzan, deialdi honen ondoretarako eta webgunean eskuragarri dagoen ereduari jarraikiz. Eskatzaileak agiri hori aurkezten ez badu, automatikoki baztertuko da.

Hainbat autoreko lanen kasuan, aurrez aipatutako agiriak lanaren egile guztiek aurkeztu beharko dituzte.

Zazpigarrena: prozedura eta eskaeren ebazpena

1. Ebaluazio-batzorde bat arduratuko da oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskaerak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.

2. Batzordeak erabakiko du zein lan hautatu, eta ebazpena interesdunei jakinaraziko die idatziz.
3. Batzordearen ebazpena apelaezina izango da.
4. Batzordearen ebazpena aldekoa bada, aurkeztutako agiriak aldeek sinatuko duten hitzarmenaren atal bereizezina izango dira.
5. Batzordearen ebazpena aurkakoa bada, ordea, aurkeztutako agiriak SGAE Fundazioaren artxiboetatik ezabatuko dira, hautatutakoei ebazpenaren berri eman eta hamabost eguneko epean.

Zortzigarrena: eskaerak aurkeztea eta epea

1. Eskaera-inprimakia eta datu pertsonalak erabiltzeko baimena SGAE Fundazioaren webgunean egongo dira eskuragarri: www.fundacionsgae.org. Inprimakiaren formatu elektronikoa erabili beharko da, eta eremu guztiak bete beharko dira. Datu pertsonalak erabiltzeko baimena eskuz bete eta sinatuko dute autoreek, eta eskaneatuta aurkeztuko dute gainerako agiriekin batera. SGAE Fundazioak eskaera guztiak jaso izana adieraziko du. Oinarrietan adierazitako agiriak ez dituzten eskaeren kasuan, eskatzaileek hamabost eguneko gehieneko epea izango dute hori zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen duten egunetik hasita.
2. 2018ko deialdirako eskaerak aurkezteko epea urriaren 15ean (astelehena) hasiko da, eta zabalik egongo da azaroaren 23ko (ostirala) 24:00ak arte. Ez dira aintzat hartuko epe horretatik kanpo heltzen diren eskaerak.

Bederatzigarrena: lankidetzaren formalizatzea

SGAE Fundazioak eta onartutako proiektuaren eskatzaileak kasuan kasuko argitalpen-contratua sinatuko dute.

Hamargarrena: isilpekotasun-betebeharra eta datu pertsonalen babesa

Deialdi honen prozesuan aldeek ematen dituzten datuak isilpekoak dira eta ezingo zaizkie hirugarrenei jakinarazi. Era berean, ezingo dira erabili zehaztutako helburuetarako ez bada, indarreko legeriak ezarritako salbuespenetan ez ezik.

Egile eta/edo egilekide guztiak emandako datuak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategi batean gordeko dira. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, erabilera mugatzeko, beste norabait eramateko, horien aurka egiteko eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak **SGAE FUNDAZIOA**ren aurrean baliatzeko, egileak edo egilekideek idazkia igorri beharko dute SGAE Fundazioaren zerbitzu juridikoetara (Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril, Espainia). Idazkian, honako hauek adierazi beharko dituzte: izena/izenak, abizenak, NAN, helbidea, baliatutako eskubidea eta horren arrazoiak.

Hamaikagarrena: arau orokorrak

1. Eskatzaileak, eskaera aurkezten duenean, agiri honetan ezarritako baldintzak eta oinarriak isilbidez onartzen ditu. Era berean, eskatzaileak baimena ematen dio SGAE Fundazioari hautatutako lanaren argitalpenari buruzko informazioa zabaltzeko memoriaren eta bestelako argitalpenetan.
2. Eskatzaileak, indarrean dagoen legea hausten badu antzezlanaren autoretzari eta antzezpenari dagokienez, SGAE Fundazioa erantzukizunetik salbuetsiko du.

3. Kontratu honen arabera, SGAE Fundazioak ez du oinarri hauetan adierazitakoa ez beste erantzukizun zuzenik eta subsidiariorik bere gain hartuko, hautatutako antzezlanari dagokionez.
4. Agiri honi ezartzen zaion legeria Espainiakoa da, eta aldeek egokitu ahal zaien foruari uko egin eta Madrilgo Auzitegien jurisdikziopean egotea onartzen dute.

Informazio gehiago: informacion@fundacionsgae.org